



# EGUNEKO OSPITALE ONKOLOGIKOA

**ONKOLOGIA MEDIKOKO  
ZERBITZUA  
ONKOHEMATOLOGIAKO  
DONOSTIA INSTITUTUA  
DONOSTIA OSPITALEA**

D O N O S T I A   O S P I T A L E A

**IDOH** ONKO-HEMATOLOGIAKO  
DONOSTIA INSTITUTUA  
INSTITUTO DONOSTIA  
DE ONCO-HEMATOLOGÍA

H O S P I T A L   D O N O S T I A

# EGUNEKO OSPITALE ONKOLOGIKOA AURKIBIDEA

**Zer da Eguneko Ospitale Onkologikoa? 3**

**Non dago Eguneko Ospitale Onkologikoa? 4**

**Nolakoa da Eguneko Ospitale Onkologikoa? 5**

**Nola egiten du lan? 6**

**Noiz itzuli behar dut? 8**

**Laguntza psikologikoa eta elkarteak 9**

**Astelehenetik ostiralera,  
08:00etatik 18:00tara  
harremanetarako telefonoa:**

**943 006 234**

# ZER DA EGUNEKO OSPITALE ONKOLOGIKOA?

Unitate bat da, ingresatu gabe, zainketa espezializatuak eta tratamenduak emateko. Irekita dago **astelehenetik ostiralera**, egunez, **08:00etatik 18:00etara**.

Onkologiako prozedurez arduratzen gara, **eta kimioterapiako tratamenduak jartzen ditugu**.

Zerbitzuan **tratamendua profesional espezializatuek jarriko dizute, modu ambulatorioan**. Horri esker, saioa bukatutakoan etxera joan ahal izango zara, ospitaleratuta gelditu gabe.



# NON DAGO EGUNEKO OSPITALE ONKOLOGIKOA?

Donostia Ospitaleko **Gipuzkoa** eraikineko **2. B** solairuan dago.

Eguneko Ospitale Onkologikora iristeko modu onena hurrengoa da:



**1** Gipuzkoa eraikinera Kanpo-kontsultetako atetik sartu (egurrezko ateak)



**2** Halletik pasa eta informazio-gunea albo batera utzita segi aurrera



**3** Fondoko igogailuraino joan (eskaileraren ondoan)



**4** Igo 2. solairura eta Erizaintzako kontrolera joan.

**Hobeto ibiltzeko aulki gurpilduna behar baduzu, galdetu edozein langileri nola jarri harremanetan zeladoreekin.**



# NOLAKOA DA EGUNEKO OSPITALE ONKOLOGIKOA?

Bertan erizaintzako taldeak eta kanpo-kontsultetako onkologoek elkarrekin lan egiten dute.

Erizainek eta erizain laguntzaileek minbizia tratatzen esperientzia handia dute.

Eguneko Ospitale Onkologiakoak bi zonalde ditu:

- Oheen aldea –bi oheko sei gela.
- Jesarlekuen aldea –bi gela jesarleku eraisgarriekin.

Alde batean edo bestean egongo zara, tratamenduaren iraupenaren arabera. Edozein arrazoiengatik, ohean etzanda egon behar baduzu, alde z aurretik esaniezaguzu, antolatu ahal izateko.



# NOLA EGITEN DUGU LAN?

Kalitateko artapena ematea da gure lehentasuna. **Antolamendua hobeto ulertuko duzu, gure lan-prozedurak ezagutzen badituzu.**

Eguneko Ospitalearen funtzionamendurako koordinatu beharra dago ospitaleko hainbat zerbitzurekin, besteak beste, kanpo-kontsultekin, laborategiarekin eta farmaziarekin.

**Esan zaizun egun eta orduan etorri behar duzu.** Eguneko Ospitale Onkologikoan erizain batek datuak hartuko dizkizu, tratamenduaren arabera alde batean edo bestean kokatzeko. Kasu batzuetan, itxoin egin beharko duzu, **Farmaziako Zerbitzuak zure tratamendua prestatu arte.**

Itxaronaldiak aspergarriak izan daitezke, baina pazientzia eta kolaborazioa eskatzen dizkizugu. Gure helburua artapen seguru eta pertsonalizatua ematea da, eta batzuetan berantestea normala izan daiteke. Zerbitzu txikia gara eta asistentzia-eskari handia jasaten dugunez, kontuan izan behar duzu **emandako hitzordua gutxi gorabeherakoa dela.**

6



Gelan zaudenean, erizain batek kateterra jarriko dizu (zain batetik), tratamenduaren arabera. Gailu batzuek (infusio-punpak) medikazioa emango dizute.

Tratamendu guzti-guztien etiketan azaltzen da pazientearen izena eta erizainak konprobatu egingo du zuzena dela.



**Medikamentua hartu bitartean**, ez duzu zertan ezer berezirik sentitu. **Sentsazio arrarorik nabaritzen baduzu, erizainari esan lehenbailehen.** Berak aztertuko du egoera eta protokoloari jarraituko dio.

7

Tratamendu bakoitza indibiduala da eta iraupena onkologoak erabakitako kimioterapia-eskeman agindutakoa.

**Eguneko Ospitale Onkologikoan beti dago guardiako onkologo bat, behar izanez gero, edozein urgentsia artatzeko.**

Zalantzak galdetu iezazkiozu artatzen zaituen taldeko edonori.

Batzuetan itxaronaldia luze xamarra izan daitekeenez, komeni da zerbait jatea.

**Hobe da tratamendu-egunean autorik ez gidatzea, farmako batzuek zure arreta gutxiagotu dezakete eta.**

**Zure osasun-egoerarengatik edo bitartekorik ez izateagatik, anbulantzia behar baduzu, esaguzu eta azalduko dizugu hura lortzeko prozedura**

# NOIZ ITZULI BEHAR DUT?

**Kimioterapiako tratamenduan ziklo batzuk ematen dira aldizka.** Saioaren iraupena, zikloaren aldizkakotasuna eta zikloa bera aldatzen dira tratamenduaren arabera.

Kontsultan esango dizute zure kasuan nola egingo den —egun bakar batean etorri edo elkarren jarraian egun batzuetan etorri beharko duzun.

**Hitzorduetako txartelean apuntatuko dizkizute tratamenduegunak eta onkologoarekin duzun hurrengo hitzordua.**

Bisita medikoaren aurretik eta, batzuetan, kimioterapiako saio bakoitzaren aurretik, **odol-analisia egingo dizute**. Kanpo-kontsultetako erizainak prestatuko dizu bolantea eta bertan azalduko da non aterako dizuten odola, **ospitalean bertan ala zure osasun-zentroan**.

Tratamenduaren bigarren mailako ondorioengatik, gerta daiteke **hitzorduak aldatu behar** izatea. Normala da hori gertatzea. Medikuek edo erizainak esango dizute zer egin kasu horretan.

**Edozein arrazoiengatik hitzordura ezingo bazara etorri, arren, esaguzu aurretik.**



# LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA ELKARTEAK

Diagnostikoak eta tratamenduak eragin emozional handia dute paziente eta familiarentzat. Bisita mediko jarraituek eta kimioterapiak animoan eragin dezakete.

Psikologo-talde bat badugu zerbitzuan, gai honetan espezialistak direnak. Pazienteak zein bere hurbilekoek zerbitzu hori erabil dezakete, behar izanez gero. Interesa baduzu, esaguzu eta geuk jarriko zaitugu harremanetan haiekin.

Gainera, Gipuzkoan badira zenbait elkarte, horrelako prozesuetan pazienteak laguntzen dutenak. Elkarateek zenbait bitarteko dauzkate sor dakizkizukeen beharrei erantzun egokia emateko.

## AECC

### Minbiziaren kontrako Elkartea

---

[www.aecc.es](http://www.aecc.es)  
[gipuzkoa@aecc.es](mailto:gipuzkoa@aecc.es)

900 100 036 (doan)

Zarautz etorb. 58, I (Antiguako auzoa)  
**Donostia 943 457 722**  
**Irun 943 630 115**  
**Tolosa 943 652 143**

- Aholkularitza
- Laguntza psikologikoa
- Gizarte laguntza
- Talde-jarduerak
- Tailerrak: makillajea, nutrizioa, sexualitatea

## KATXALIN

### Bularreko minbiziak eta minbizi ginekologikoak eragindako Gipuzkoako emakumeen elkartea

---

**DONOSTIA OSPITALEA** Ama-haurren eraikina (2.solairu berdea)  
**943 007 179**

**Donostia 943 245 608** (Txara-Intxaurrenondo)

**Arrasate 943 794 139** asteazkenetan, 10:00 - 12:00

**Azpeitia 943 816 202** ostegunetan, 10:00 - 12:00

- Gizarte-laguntza
- Laguntza psikologikoa
- Aholkularitza juridikoa
- Fisioterapiako zerbitzua
- Boluntarioak
- Ikastaroak: nutrizioa, sexualitatea, linfedema

## AOSGUI

### Gipuzkoako ostimizatuen elkartea

---

[www.aosgui.com](http://www.aosgui.com)  
[aosgui@aosgui.com](mailto:aosgui@aosgui.com)

Txara, I, Zarategi ibde.100  
**(Donostia-Intxaurrenondo)**

943 245 607 / 625 706 701

- Ostomizatutako pertsonen aholkularitza (kolostomia, ileostomiak, uretostomiak)
- Ostomientzako produktuen informazioa
- Laguntza psikologiko, juridiko eta laborala

## ASLAGUI

### Gipuzkoako laringektomizatu eta ahots gabetuen elkartea

---

**Onkologikoa**, Beguiristain dr. ibde., 121

**Donostia** (ospitaleak)

943 328 000 Astearte eta ostegunetan, 9:30 - 11:00h

- Hizketan ikasteko tailerak
- Bilerak afektatuekin.
- Laguntza psikologikoa